# ZAD
# bizi dutenen ahotik

## Gatuzain eta Txalaparta argitaletxeen liburu berria

## 2018ko abendua

Notre-Dame-des-Landes, borroka lekua eta esperantza sortzailea.

Nola bizi, ekoiztu eta trukatu kapitalismoaren kontsumo eta alienazio legeetatik bereiz? Nola kudeatu egunerokotasuna eta gatazkak, larderiarik gabe, delegazio alderdikoietatik aparte, demokrazia zuzenean eta berdintasunean? Eta, beste mundu posible baten promesa dakarren esperientzia hori haustera etorriko den estatuaren indarrari aurre egiteko, nola antolatu erantzun azkar eta egikorrak?

Iñaki Etxeleku zaden egon da, eta han direnei galdetu die. Erantzunetan ez da formula zurrunik, ez eta demagogia edo doktrinarismorik. Jendeak lañoki erantzuten du, argitasun harrigarriaz. Sentitzen dutenaren gibelean sumatzen dira hausnarketa asko eta sakonak, eta laguntza handikoak dirateke ezker iraultzailearen etorkizunaz grinatzen diren izpiritu idoki guztientzat.

Baita zadeko bizipen kolektibo eta militante horiek hurbilagotik ezagutuz, autonomiaren eta autogestioaren nondik norakoak hobe ulertu nahi dituenarentzat ere.

Horien eskuetan emateko liburua.




## Ezaugarriak

Orrialde kopurua : 168

Salneurria : 15,00 euro

ISBN : 978-2-913842-74-8

### Banaketa

Elkar Baiona



## Egilea

**Iñaki Etxeleku Thikoipe**

(Biarritz, 1977) *Berria* egunkariko kazetaria da, *Ipar Euskal Herriko Hitza* astekarian, bereziki. Garazi aldean handiturik, zenbait urte hauetan Baionan bizi da.

### Argitaletxeak

Gatuzain
29 posta kutxa,
64880 Ustaritze
gatuzain@gmail.com

Txalaparta
San Isidro 35-1A
31300 Tafalla
info@txalaparta.eus